

## AUTOEBALUAZIOA

## III. MODULUA: LARRUAZALPEKO ADMINISTRAZIOA

1. Larruazalpeko administrazioa:

- a) Osasun profesional espezializatu batek egin behar du administrazioa
- b) Administrazio zona txandakatzea komeni da**
- c) Aldez aurretik kargatutako xiringak erabiltzen direnean injekzio-angelua 45° koa izan behar da
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira

2. Larruazalpeko administrazioa:

- a) Askapen iraunkorreko konprimituen administrazioa ahalbidetzen du
- b) Garraiatzaile oliotsuak dituzten disoluzioak ez dira komenigarriak
- c) Garraiatzaile hidrodisolbagarriak dituzten disoluzioak erabilienak dira
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira**

3. Larruazalpeko administrazioa:

- a) Azido hialuronikoren presentziak errazten du
- b) Sustantzia hodi-zabaltzaileak edo hodi-uzkurtzaileak erabili daitezke xurgapen abiadura kontrolatzeko**
- c) Gorputzeko tenperaturak ez dauka xurgapenean eraginik
- d) Erabilitako administrazio zonak ez dauka xurgapenean eraginik

4. Larruazalpeko administrazioan:

- a) Lipodistrofiak agertzearen arrazoietakoa bat injekzio zona ez txandakatzea da
- b) Lipohipertrofia ohikoagoa da gizonezkoetan
- c) Lipoatrofia ohikoagoa da emakumezkoetan
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira**

5. Larruazalpeko administrazioa:

- a) Intsulina eta beste hormona batzuk administratzeko erabiltzen da
- b) Larruazalpeko heparina sabelaldean administratzen da
- c) Zaintza aringarrietan erabiltzen da
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira**